



4. IBILBIDEA MUGARRA

DURANGO - LARRINAGATXU - SANTA LUZIA - MUGARRA

Ibilbidea Durangoko San Roke basilizan hasten da. Hemendik ezkerreko errepidea hartuko dugu, **Larrinagatxu** auzorantz.

Larrinagatxun, porlanezko horma baten ondoan, eskuinaldeko bide asfaltatua hartuko dugu. Hemendik bide zabalago bat hartuko dugu, **Arrioletxe** baserritik gertu. Durangaldearen ikuspegi ezin ederragoa izango dugu begien aurrean. Pista hartu eta pinudian sartuko gara. Bide bat aurkituko dugu: horiz eta zuriz margotua. Bide honek Santa Luzia auzora eramango gaitu. Pintura markak jarraituko ditugu harik eta txabola batera heldu arte.

Pendiza gogor bat igo ondoren, **Katazka** haitzartera helduko gara, eta hemendik **Mugarrikolandara** helduko gara. Mugarrikolandan **Oiñiturri** iturrian edan dezakegu ur tragoxka bat. Ezkerraldean dagoen bidea hartuz **Mugarra** mendirantz joan gaitezke. Bai Mugarrikolandatik eta baita Mugarra tontorretik ere Durangaldeko paraje ederrez gozatuko dugu, eta sai asko ere ikusiko ditugu zeruan bueltaka.



DISTANTZIA

8 km



IRAUPENA

4 ordu



DESNIBELA

850 m



ZAILTASUNA

Nahiko zaila